



**#HERRIKIDE**



Mundua elkar ezagutzen eta elkarri laguntzen dieten 7.000 milioi herritarrek baino gehiagok osatzen dutela pentsatzea gustatzen zaigu Caritasen. Herri honetan gertatzen den guztia axola zaigu eta guztiak eragiten digu, denok baikara Jainkoaren herria eta inork ez bailuke kanpoan geratu behar.

**KARITATE EGUNA 2021**


  
**Caritas**  
CARITAS.ES

Jainkoaren herria gara, etxe berean bizi garen giza familia, guztion lurra den planeta, anitza eta askotarikoa, etxeko besoekin hartzen gaituena. Ugaritasuneko eta aniztasuneko lur hori bezalakoak gara, aberastasuna, edertasuna, adimena, sormena, sentsibiltatea eta eskuzabaltasuna ditugu. Natura gara, lurra gara, Jainkoak sortutako eta oparitutako bizitza gara.

Giza bizitzaren dimentsio guztiei eragiten dien pandemia eta krisi garai berezi honek beste leku komun batean kokatu gaitu: hauskortasunaren, txikitasunaren, inpotenziaren, beharraren lekuan. Oinazea, pobrezia eta bazterketa besteei gertatzen zaienaren urruntasunetik bizi ditugu askotan, baina gaixotasunaren zoritxarra eta horrek dakarren segurtasun eza direla eta, nahi edo nahi ez, **gu bateratu** baten oraina hartu dute galeraren minak, gaixotasunaren ahultasunak, bakardadeak eta hutsak, nahiz eta besteei gertatzen zaienarekiko axolarik gabe, norbanako ni indibidual eta axolagabe horri lotuta jarraitzeko beharra dugun.

Azken hilabete hauetan nekeak, abaildurak eta normaltasuna lehenbailehen itzultzeko nahiak oztopo egiten diote beste normaltasun bat ezartzeko aukerari eta beharrari. Caritasen ez dugu lehengora itzuli nahi, baizik eta normaltasun berri, bidezkoago eta anaikorrago baterantz joan nahi dugu, anai-arreba egiten gaituen gu horretatik eraikia.

Horregatik, garen herri unibertsal horretatik **ospatu nahi dugu Karitate Eguna**, eta, aitortu, Frantzisko aita santuak dioen bezala, “maitasuna, elkar zaintzeko keinu txikiz betea, zibila eta politikoa ere bada, eta mundu hobea eraikitzen saiatzen diren ekintza guztietan ageri da”<sup>1</sup>. Karitateak eskuak luzatzera eraman behar gaitu, eguneroko keinu txikiak egitera, eta denon onerako konpromisoa hartzera garamatzaten dinamika sozialetan parte eta esku hartzera.



## CORPUS CHRISTI, KARITATE EGUNA<sup>2</sup>

“Hartzazue, hau nire gorputza da”. “Hau itunaren odola da, askok isurtzen dutena”. Maitasun testamentu hori da eukaristia bakoitzean kristau komunitateari dei egiten diguna, Jesusen bizitza, heriotza eta berpiztea agerrarazteko. Frantzisko aita santuak bere homilietako batean dioen bezala, “ez da oroitzapen hutsa, gertaera bat baizik; Jaunaren Pazkoa da, gugatik berritzen dena. Mezan, aurrez aurre ditugu Jesusen heriotza eta berpiztea. Egizue hau nire oroigarri: bildu zaitezke, eta komunitate gisa, herri gisa, familia gisa, ospa ezazue eukaristia nitaz oroit zaitezten. Ezin dugu albo batera utzi, Jainkoaren oroitzapena da”.

Jainkoaren oroimen horrek gure erosotasunetik aterarazten gaitu gaur, gure bihotzaren eta gure etxearen atea irekiarazten, bizia eman eta sortzeko, eta gai gara garenaren eta irrikatzen dugunaren zati bat Jesusengatik emateko. Erdibitzen eta partekatzen den gorputza eta odola, pertsona pobre eta behartsuenen hurkoak eta gertukoak izateko.

<sup>1</sup> Francisco, *Laudato si'*, 231.

<sup>2</sup> *Libro litúrgico de Cuaresma y Pascua 2021. Caritas.*





# KARITATEAK EZ DU MUGARIK

Bizitzatik sortzen den maitasuna da karitatea, doan ematen dena, ordainketarik espero gabe edo besteak egitea espero dugun horren aurrerapenik gabe. Mugarik gabeko maitasun horixe da, mugarik eta baldintzarik jarri gabe, anaitasun unibertsala egiten duena, elkartasun esperientzia hori, geure nortasunetik harago doana, leku, kultura, sineste eta bizitza ulertzeko modu bateko kide izatetik harago.

Maitasun mota horixe da maitasun sozialaren oinarrian dagoena, “egungo munduko arazoei aurre egiteko eta egiturak, erakunde sozialak eta ordenamendu juridikoak barrutik sakon berritzeko bide berriak sortzeko gai den indarra”.<sup>3</sup>

Kristau komunitatea garen aldetik, Jainkoaren herria garen aldetik, **nahasteko konpromisoa dugu** pertsona guztiekin, eguneroko bihurtzeko mugarik gabeko karitate hori, beste leku batzuetatik lan, egonkortasun, garapen eta bake bila datozenekin. Bidean alde batera geratu direnekin, noizbait gauzak gaizki joan zitzaizkielako, ahul sentitu eta beren bizitzari eusteko gai izan ez direnekin, eta gertuko esku bat, babesa, entzun eta ulertuak izatea behar izan dutenekin.

# KARITATEA SAREAN JOSTEN DA



“Bakoitza erabat pertsona da herri batekoa denean, eta, aldi berean, ez dago benetako herririk pertsona bakoitza errespetatu gabe”<sup>4</sup>. Besteekiko gara beti. Ezin ditugu geure buruak izaki isolatu eta loturarik gabekotzat hartu. Beste pertsona batzuekiko auzotasun eta hurbiltasun testuinguru batean jaio gara, eta gure harreman mundua zabaltzen duten zirkuluetan korapilatzen da gure bizitza.

Karitate egun bat, aste bat ospatzea, **gure fedearen eta aukeraren testigantza ematea da**, gure begiradaren eta gure ekintzaren erdigunean **personenganako maitasuna** jartzeko aukeraren testigantza, bereziki pobreenenganako, txikienganako eta mundu pragmatiko eta indibidualista honen logikak babesten ez dituenenganako maitasuna.

Hirukoiztarra eta komunitarioa da karitatea, pertsona guztientzako da. Ez du inor kanpoan uzten. Berekin dakar “bihotzaren jarrera, dena arreta handiz bizi duena, inoren aurrean bete-betea egoten dakiena, gero datorrenean pentsatzen aritu gabe”.<sup>5</sup>

<sup>3</sup> *Compendio de la doctrina social de la Iglesia, 207*

<sup>4</sup> *Francisco, Fratelli tutti, 182.*

<sup>5</sup> *Francisco, Laudato si', 226.*

# HERRIKIDEAGOA

## IZAN ESKUAK LUZATUTA

Aurten, garai berezi eta mingarri baten erdian ospatuko dugu Karitate eguna, eta birsortu egin behar ditugu gure arteko harremanak, elkarri eusteko eta elkar modu berri batean zaintzeko. Gure begiradan eta gure keinuetan, besteak entzuteko eta hartzeko moduan, **adeitasuna berreskuratzeaz** hitz egiten du Frantzisko aita santuak. Karitate eguna ospatzeak gure fedearen lekuko izatera eraman behar gaitu kristau komunitatea, Jesus Berpiztuaren Biziaren oturuntza partekatzerara, kontsolamenduaren, hatsaren, salaketaren eta itxaropenaren zeinu bihurtuz gizarte hautsi eta zauritu honen erdian.

**Eskuak, keinua, begirada zabaltzera gonbidatzen zaitugu gaur. Munduarekin bat egiten duen **JAINKOAREN HERRIKIDEAGO** izatera gonbidatzen zaitugu gaur.**

### **Aldatu zure bizitzeko modua.**

1 Landu hurbiltasuna eta prestutasuna. Egin zaituz bizilagun, jarri berriz ere harremanetan beste pertsona eta taldeekin, ausartu zaituz ematera, baina baita eskatzera ere, elkarrekiko mendekotasun horrek anaitasuna sortzen baitu.

### **Idatu zure begirada.**

2 Hurbildu begirada errealitatera samariar onak egiten duen bezala. Ezagutzeak eta izena jartzeak bihotza irekitzen dio errukiari, zure bidean dagoenari entzuteko, kasu egiteko eta sendatzeko.



### **Partekatu zure denbora.**

3 Eta bizi zaituz bihotza egiaz maitasunari irekita. Egin barre, eskertu, bedeinkatu, sortu, naturaz gozatu eta bihurtu zure bizitza gorespen; dastatu edertasuna, partekatu zure poza, lagundu oinazean eta tristuran, hartu parte parrokiari, egin boluntariotza, hurbildu zure auzoko elkarteetara. Denboraz betea dago oraina.

### **Ez pasa gelditu gabe.**

4 Jesusi jarraitzeak berekin dakar parte hartzea eta ahal den guztia egitea duintasuna, eskubideak eta justizia pertsona guztientzat izan daitezkeen. Guztiaz jabetu gaituzen eta koherenteagoak izan gaituzen erabaki pertsonalekin eta taldean, komunitatean, hartzen ditugunekin. Gu konpartitu batean oinarritzen dira aldaketak.





# SARE SOZIALETAN ZABALTZEKO JOKABIDEA

Keinu xumez betea dago bitzta, ia ikusezinak, oharkabean gertatzen diren baina bitzta hobea egiten diguten jokabideak. Eskuarekin agur bat, eskerrik asko, irribarre bat, zer moduz zauden galdetzeko dei bat, atea irekitzea bizilaguna erosketa poltsekin kargatuta doanean... horiek guztiak egiten gaituzte pertsona, eta baita herri eta elkarte handiago.

**Zer proposatzen dizugu?**



## IRUDIA

Atera argazki bat bakarka edo talde txikian, hori bai, osasun neurri guztiak errespetatuz, agurtzeko eskua altxatuz. Idatz ezazu zure esku ahurrean ondo ikusteko moduko hizkiz **#HERRIKIDE** kanpainaren leloa.



## TESTUA

Testu labur bat gehitu nahi baduzu, badakizu ezin dela Twitterrek markatzen dituen 280 karaktereak (hashtag-a barne) baino luzeagoa izan. Esaldia: **Ni herritarragoa naiz...** (idatzi ekintza bat zuk egiten duzuna eta herritarragoa, komunitate anaiartekoagoa, egiten lagundu dezakeena). **#HERRIKIDE**. Adibide bat emango dizuegu.



## PARTEKATU SARE SOZIALETAN!

Sare sozialetan Karitatearen Astea ospatuko dugu maiatzaren 31tik ekainaren 6ra. Partekatu zure argazkia sare sozialetan **#HERRIKIDE** hashtag-arekin. Profil sozialik ez baduzu, partekatu zure argazkia zure Elizbarrutiko Caritasekin, zure ordeztu argitaratu dezaten.





# OTOITZAREN TXOKOA

Krisi eta hauskortasun garai honetan eraberritu egin behar ditugu bizitza, harremanak eta afektuak. Berreskuratu egin behar ditugu gure giza esentzia eta Jainkoaren esentzia gugan. Horregatik, isiltasuna ere behar dugu, gure barrura begiratzeko, Jesusengana itzultzeko eta Berarekin eta bere Hitzarekin modu berri batean topo egiteko; Kreatzioan aurkitzeko, sufritzen, negar egiten, kantatzen edo barre egiten duen anaia eta arreba bakoitzarengan.

Har ezazu egunero denbora bat egiteari uzteko, egoteko, entzuteko, Jainkoa zugan hartzeko.

## KANTUA

*“Iratzar nazazu” abestia.*  
*Ixcís, Cristobal Fones, SJ.*  
<https://www.youtube.com/watch?v=UD-2yEVpqNU>

## SALMOA

Otoitz egin aurretik  
gure bihotza zugan jarri aurretik  
eta zuri hitz egin aurretik  
begiratu diguzu dagoeneko  
gure egoera urratuetan.  
Gure erregu otoitzak  
erantzun egin dio  
lehen gure erraietan  
jo duen zure ahotsari.

Zuk entzun egiten duzu  
gure kexa desegina (Sal 69,4),  
eta gure garrasi komunitarioa  
herri zapalduarena (Ex 3,7).  
Garrasi zaharra  
airera botatakoa,  
kantu berri bihurtzen duzu  
zuri gorazarre egiteko (Sal 40,4).  
(...)

Zer eskatu ez dakigunean  
nahasmenaren erdian,  
Zure Espirituak bere egiten du gure oinazea  
eta gure alde egiten du  
hitzik gabeko intziriekin (Rom 8,26).

Guk deitu aurretik  
erantzun egiten diguzu  
Oraindik hitz egiten ari gara  
eta zuk entzun diguzu jada (Is 65,24).

Gure otoitza zuri,  
zure ekintza salbatzailearen zeinua da  
gure baitan  
ahots komunitarioa eginez.

(“Salmos para sentir y gustar internamente” liburukoa, B. González Buelta, SJ).





## HAUSNARTZEKO TESTUA

Frantzisko aita santuaren gutun entziklikotik, Fratelli tutti, 115

“(…) zerbitzua, hein handi batean, ahultasuna zaintzea da. Zerbitzateak esan nahi du gure familietako, gizarteko, herriko ahulenak zaintzea. Lan horretan, bakoitza gai da “bere bilaketak, afanak, ahalguztiduntasun nahiak alde batera uzteko, ahulenen begirada zehatzaren aurrean. (...) Zerbitzuak beti begiratzen dio anaiaren aurpegiari, haren haragia ukitzen du, haren hurkotasuna sentitzen du eta, kasu batzuetan, baita pairatzen ere, eta anaiaren sustapena bilatzen du. Horregatik, zerbitzua ez da inoiz ideologikoa, ez baitie ideiei zerbitzatzen, pertsoneri baizik”.



## KANTUA

“Ni naiz” abestia (Almudena):

<https://www.youtube.com/watch?v=paYV6604s2w>

Herri eta elkarte handiagoa izatea da, anaitasunetik eraikitzen dena, elkar maitatzeko, sortzeko, zaintzeko, zerbitzatzeko, ehuntzeko, bizitza berria egiteko ditugun aukera guztietatik begiratuta. Izan gaitezen Jainkoaren herri handiago gure gizateria zaurituaren zerbitzura.

## AMAIERAKO OTOITZA

### *Inplika nazazu, konplika nazazu*

Inplika nazazu, Jauna, behartsuekin.  
Inplika nazazu kausa honekin, zurea den honekin.  
Inplika nazazu, konplika nazazu, ihardetsi iezadazu.

Inplika nazazu harritu, urduritu eta ilusio sortzen duen zure moduan.

Ez dezadan jakin begiratzeari uzten.  
Ez dezadan jakin maite izateari uzten.  
Ez dezadan jakin maitatzeari uzten.

Konplika iezadazu bizitza, horixe baita maite dugunean gertatzen dena.

Konplika nazazu, kartsu bihurtuz.  
Konplika nazazu, gauzak ez baitira errazak.  
Konplika nazazu, malkoek min egiten baitute eta gosea txarra baita,  
eta garrasiak ezin baitira itzali.

Konplika nazazu, mundu hautsia ez baita leku eroso.

Ihardets iezadazu alde egiteko argudioak azaltzen ditudanean.

Ez iezadazu utzi nire bidea atzeratzen.  
Aski da, hainbeste hitz eta pitz.

Nire arazoetan murgilduegi banago,  
nire jardueri erabat emana,  
Neure burua aurrera ateratzen lanpetuegi,  
Inplika nazazu, Jauna, eta konplika nazazu

(Patxi Loidi)